

InsoHmniO

1 **Sorrera.** Ivanek, Gribik, Frankek eta Victorrek bi urte lehenago Legarren entseatzen zuten arren, InsohmniO 2006ko hasieran jaio zen, Cillo taldera heltzean. Hasieran Deklive izena ipini genion taldeari, baina Leon inguruan beste talde batek izen bera zuen eta gurea aldatzea erabaki genuen.

2 **Izena.** Bi hitzen arteko hitz-jokoa da: 'insomnio' eta 'ohm-nio', logurari erresistentzia (barreak). 'H'a ipintzea ondo etorri zitzaigun, Insomnio deituriko beste talde bat dago-eta!

3 **Kideak.** Bost kide gara oraindik ere, baina azken 2 urteotan bi aldaketa izan dugu. Gribik Damudot taldean zentratzeko laga gintuen eta Frankek 2011ko abenduan utzi zuen musika, arrazoi pertsonalak zirela-eta. Galindo 'MLK'k jotzen du egun baxua eta Jorge Vega baterian aritzen da. Ivánek eta Victorrek gitarrak jotzen dituzte eta Cillo abeslaria da.

4 **Estiloa.** Rocka egin dugu betidanik, baina orain metal-rockean murgildu gara apur bat. Gure estiloa definitzea asko kostatu izan zaigu beti. Gure entzuleei galdetuz gero, bakoitzak bere bertsio emango luke: metala, rocka, punk-rocka... nahiko bereziak gara!



5 **Abestiak.** 'Animal de noche' maketan eta 2010ean kaleratu genuen 'Demasiado suficiente' diskoan dauden abesti guztiak guk sortu ditugu. Gure inguruan gertatzen diren gauzei buruz hitz egiten dugu abestietan: maitasuna eta maitasun eza, gudak, immigrazioa, lana edo, hobe esanda, ez dagoen lana... Gure kontzertuetan Sugarless eta Hamlet-en bertsioen bat ere jotzen dugu oraindik.

6 **Entseguak.** Beti-Ondoko lokalak zabaldu zirenetik bertan entseatzen dugu, baina aurreko urtera arte Eibarko Legarren entseatzen genuen.

7 **Azken kontzertua?** Gasteizko gaztetxean eman genuen azken kontzertua baina duela gutxi Soziedad Alkoholikaren 'teloneroak' izateko gonbitea egin digute (Barakaldoko RockStarLive aretoan otsailaren 24an). Zorte handia izan dugu, loteria tokatu izan balitzaigu bezala!

8 **Diskorik, maketarik...** 2007an 'Animal de noche' maketa grabatu genuen eta 2010ean 'Demasiado suficiente' diskoa. Maketa originala eskuratzea ezinezkoa da baina interneten deskargatu daiteke. Diskoa Ganbara, Scorpio, London, Lurpe eta Zappa tabernetan eros daiteke. Gure webgunean ere deskargatu daiteke (www.insohmniO.com). Gurekin kontaktatzeko: insohmniO@gmail.com.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA

38 urte Ermua euskalduntzen